



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

**“GURE BERBIE EUSKERAZ”
HITZARMENGINTZA EGITASMOA-2009**



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

AURKIBIDEA:

1.- AURREKARIAK

- 1.1.- Aurrekariak (merkataritza eta enpresa arloa)
- 1.2.- Aurrekariak (elkarteen arloa)

2.- HELBURUAK.

3.- EGITASMOAREN OINARRIAK.

- 3.1.- 2007an bete diren zeregin nagusiak
- 3.2.- Hitzarmenkide berriak eta zerbitzu iraunkorra
- 3.3.- Jarduerak nork burutu dituen

4.- XEDE TALDEAK

5.- KRONOGRAMA.

6.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

-7.- AURREKONTUA



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

1.- AURREKARIAK

1.1.- Aurrekariak (merkataritza eta enpresa arloa)

1993.ean eratu, orduan hasiera eman eta hiru urteko lehenengo fase batean garatzeko taxutu zen egitasmoari ekin diogu zintzo gaur arte. Beraz, hamabosgarren urtea dugu merkataritza arloa jorratzen, urteak pasatu ahala lan-sistema bat finkatu eta hobetzea ekarri diguna eta bidean beste esparru batzuetan (enpresetan, elkarteetan) ekiten hasteko eredugarri izan duguna.

2001ean merkataritza arlorakoa bideratuta ikusten genuen neurrian, **enpresa mundua lantzen hastea beharrezko jo genuen**, hurrengo urteetarako esparru horrekiko jokabideak finkatu asmoz. Bidea errazago egin zaigu enpresa munduan, arestian esan bezala merkataritzan urteetan taxutu eta egokitutako eredua izan dugulako.

Aipatu behar merkataritza eta enpresetara zuzendutako kanpainaren segimendu lanarekin lortu nahi dugun helburu nagusia: merkataritza eta enpresetako esparruan jokoan sartzen diren guztiekin harremanak landu eta ahal den neurrian merkatal zirkulu osoa kanpainan integratu, hau da, hornitzaile, saltzaile eta erosleekin (batez ere erakunde publiko, kirol eta kultur elkarte eta ikastetxeekin ditugun loturei probetxua atereaz) harremanak lantzea.

Bestalde, kanpaina honen bitartez, urte bakoitzean egiten da aurreikuspena hitzarmen berriak sinatzeko, eskaini daitekeen zerbitzuaren arabera, harreman zuzena izatea delako kanpainaren zutabe nagusia eta, horretarako, denbora dugu muga. Esan behar, bai merkataritzan zein enpresa arloan hitzarmenkide kopurua gora doala urtetik urtera.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

1.2.- Aurrekariak (elkarteen arloa)

Elkarteei begirako hitzarmengintzaren nondik-norakoak argitzeko, Gernika-Lumoko Udalak 2003ko apirilaren 30ean onartu zuen Plan Estrategikoaren atarira jo behar dugu zuzen. Hagatik, hona hemen, literalki, **udalak 2002an burutu zuen diagnostikoan jasotzen zena:**

Bestalde, interesgarria deritzogu **Ainoa Etxebarria Andreak 2001ean egindako diagnostiko-lan erraldoiaren (Euskararen presentzia eta ausentzia Gernika-Lumon) emaitza batzuk** hemen islatzea, kultura, aisia eta kirol esparruei dagokienean batik bat:

“Euskaldun portzentajeen batz bestekoak kultura / aisia elkarteetan (%)”

Adin taldeak	Euskaldunak % (batezbestekoa)
HAURRAK	%93
GAZTEAK	%88
HELDUAK	%84
ADINEKOAK	%90


Iturria: Ainoa Etxebarriak jasoa.

* Behin-behineko datuak eta hurbilketaak.

Parte hartzaile guztiak, taldekideen %100 euskaldunak diren elkarteak kantu, bertso, dantza, musika eta ekologiaren arduratzen direnek osatzen dute. %80tik gora euskaldunak osotuta daudenak irteera, jaialdi, hitzaldi eta abarrekotzat antolatzen dituztenak. Euskaldun portzentajea horretara heltzen ez diren elkarteak irati saio eta historialaritzak lantzen dituztenak dira.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



Normalean gazteleraz %20an entzungo da eta euskeraz edo elebitan %80 inguruk egiten dute (elkarteak). Baina badu gorabeherarik. Kide edo partaide guztiak euskaldunak direnean, euskera erabiltzeko tendentzia altuagoa da, bai harreman informetarako, bai prestatutako ekintzetan. Gaztelerarekin tartekatzen dituzten ekitaldiak mahai inguru eta antzekoetan hizlaria erdalduna bada. Partaideren bat erdalduna denean gaztelerarako joera gehiago dago, nahiz eta gure ustetan ez da horrenbestekoa. Hau da, kide guztiak euskaldunak ez direnean euskera eta gaztelera, hizkuntza biak erabiltzen direla dioskute elkarteetako arduradunek eta antzeko proportzioan gainera, erdi eta erdi. Batzutan ahozko harremanak eta ekitaldiak euskerazkoak izan arren, bilera edo idatzizko formuletan gaztelera gailentzen da.

Euskaldun portzentajeen batz bestekoak kirol elkarteetan (%)

Adin taldeak	Euskaldunak % (batezbestekoa)
HAURRAK	%90
GAZTEAK	%81
HELDUAK	%60
ADINEKOAK	❖

Iturria: Ainoa Etxebarriak jasoa.


* Behin-behineko datuak eta hurbilketaak

Haur eta gazteen artean euskaldunen portzentaia altua da. Helduengan, ordea, nahiko baxatzen da. Horrek elkarteen funtzionamenduan eragin nabarmena du,



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

entrenatzaile eta monitore asko erdaldunak direlako. Kirol elkarteen jarduera pilota, futbola, saskibaloia, mendi irteera edota auto lasterketekin lotutakoa da, batik bat.



Euskeraz %33tan entzungo ditugu entrenamendu, partidu edo antolatutako ekintzetan. %45 gazteleraz eta %22k elebitan. Euskera hutsean edo elebitan egindako erabilera %55ekoa da. Baina datu hauek irakurtzean kontuan izan behar da batezbesteko orokorrak direla. Ez dakigu zenbat pertsona diren euskera erabiltzen dutenak edo zenbatek egiten duen gazteleraz.”

Horiek guztiak kontuan hartuta, 2004an elkarteei begirako hitzarmengintza jarri genuen abian, “Geure berbie euskeraz” deitura hartu zuena.

2007an guretzat egokipen garrantzitsua gauzatzea erabaki eta egin egin zen, administratiboki eta lan-sistemari zegokionean hobetzeko bidea zekarrena: **banatuta genituen bi egitasmo bateratzea**, hau da, bata Merkataritza/enpresetarako kanpaina eta, bestea, elkarteei begirakoa. 2008an egonkortu egin da jokabide hori eta egitasmoari jarraipena egitea erraztu digu.

Oinarri nagusia, atal guztietarako (enpresak, merkataritza, elkarteak), “hitzarmena” dugu, Gernika-Lumoko Udalarekin agente bakoitzak sinatzen duena. Gero, atal bakoitzak, merkataritza, enpresa edo elkarte arloa izanda,



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

bidezko egokipenak ditu, baina lan-sistema berberari eusten zaio: harreman zuzena (bisitaldiak), zerbitzu iraunkorra,...

2.- HELBURUAK

Helburuak zehazterakoan, Euskararen sustapenerako Gernika-Lumoko Plan Estrategikoaren ildotik 2008ko Kudeaketa Planak aintzat hartu dituen esparru, neurri eta ekintzak agertu behar hemen:

- **2. Helburu estrategikoa.- Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza.**

Esparrua

2.d - Enpresa-mundua

Neurria

2.d.001 - Merkataritza eta enpresa jardunak bezeroen hizkuntza eskubideekiko eragin nabarmena du. Beraz, kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko 123/2008 Dekretuak finkaturikoa gauzatu ahal izateko ekintzak sustatu behar dira eragileekin elkarlanean. Hau guztia, esparru honetan egin beharreko motibazio eta sentsibilizazio kanpainez gain.

Ekintzak	Eragileak
2.d.001/001 - Kontsumitzaileen eskubideei buruzko 123/2008 Dekretua bete dadin ekintza zehatzak eratzea	Eusk. Zerb. Artezenpresa

Neurria

2.d.01 - Enpresetan euskararen erabilera areagotzeki begira, hizkuntza-politika antolatu helburu horiek kontuan: merkataritzaganbarak, enpresariak eta enpresari-elkarteak, elkargoak, sindikatuak, eta abar, hizkuntza-politika horretako partaide bihurtzea; lantokietan euskararen aldeko proiektuak ezartzeko markoa definitzea eta giza baliabideak nahiz ekonomikoak bideratzea; lantokien tipologiaren arabeko proiektuak diseinatzea eta gauzatzea.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

Ekintzak	Eragileak
2.d.01/1 - Enpresetan barne eta kanpo plangintzak egiteko laguntza eskaini	Eusk. Zerb. Artez enpresa
2.d.01/2 - Bertako enpresekiko harremanetan euskara lehenetsi (tramite administratiboak, zirkularrak, gutunak,...)	Eusk. Zerb. Udala
2.d.01/3 - Bertako enpresen artean Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak eskaintzen dituzten laguntzak ezagutarazi eta eskaera egiteko languntza eskaini	Eusk. Zerb. Artez enpresa
2.d.01/4 - Arloko elkarteekin harremanetan jarri eta euskararen inguruko proposamen orokor bat egin	Eusk. Zerb. Merk. Elk.
2.d.01/6 - Sektoreetako arduradunei (dendariei, tabernariei,...) euskara erabiltzearen abantailak ikustarazi	Eusk. Zerb. Artez enpresa
2.d.01/7 - Eraginkorrak diren establezimenduak identifikatu eta mikroplangintzak egin	Eusk. Zerb. Artez enpresa
2.d.01/8 - Eusko Jaurlaritzak edota Foru Aldundiak enpresetan euskararen erabilera areagotzeko programetan parte hartzen duten enpresei laguntza teknikoa edo diruzkoa eman, ezarrita dauden irizpideekin bat etorritz	Eusk. Zerb.
2.d.01/9 - Merkataritza eta ostalaritza euskalduntzeko saioak abian jarri eta inplementazioa landu	Eusk. Zerb. Artez enpresa

Neurria

2.d.03 - Kanpaina erraldoiak antolatu beharrean, banan-banako sentiberatze-jardunak egin industriaz, merkataritzaz, lanaz eta lanbide-heziketaz arduratzen diren sailekin; enpresei zerbitzu emateko dauden enpresa publikoekin; enpresari, merkatarari eta profesionalen elkargoekin, eta udalerri euskaldunetako enpresariekin, enpresa-munduko eragileen partehartzea lortzeko.

Ekintzak	
2.d.03/1 - Eragile nagusien partaidetza lortzeko banan-banako sentiberatze jardunak egin	Eusk. Zerb. Merkat. Saila Artez enp
2.d.03/2 - Sindikatuak, Merkatal Ganbarak eta enpresa munduan eragina duten agenteekin euskara bultzatzen lan egin	Eusk. Zerb. Eusk. Batzord



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

Esparrua

2.e - Aisia

Neurria

2.e.001 - EBPnk berak eta Gernika-Lumoko aurreko Plan Estrategikoak ere aisiaren esparrua haur eta gazteekiko planteatzen zuten batik bat. Ordua da aisiaren kontzeptu zabalagoa aintzat hartzea eta helduen aisiari gehiago erreparatzea. Horretarako, elkarteei (gazteria arlokoak, kulturakoak, ongizatekoak –emakume, alargun, hirugarren adinekoen elkarteak-, gobernu kanpoko erakundeetakoak,...) begirako HITZARMENGINTZA modu bateratuan landu behar da, aisialdiarekin konpromiso zuzena dutenek elkarteetatik bideratzen dutelako gogo hori. Beraz, elkarteen barru eta kanpoko funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzeko jokabideak finkatu behar dira.

Ekintza	Eragileak
2.e.001/001 - Elkarteen barru eta kanpoko funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzeko hitzarmenak sinatu	Eusk. Zerb. Artez enpr.
2.e.001/002 - Hitzarmenkide diren elkarteei zerbitzu iraunkorra eta aholkularitza globala eskaini, barruko zein kanpoko kudeaketari dagokionean	Eusk. Zerb. Artez enpr.

Esparrua

2.f - Kirola

Neurria

2.f.01 - Hiruzpalau urteko plan estrategiko batean kirol-arloa euskalduntzeko hiru lan-esparru nagusi taxutu: materialaren sorkuntza eta hedapena; entrenatzaileentzako titulu ofizial eta ez ofizialak lortzeko ikastaroak; sentsibilizazio eta zabalkunde orokorra zein herri-mailakoa.

Ekintzak	Eragileak
2.f.01/001 - Kirol Elkarteen hitzarmenak sinatu, euskararen erabilpena areagotzeko.	Eusk. Zerb. Artez enpr.
2.f.01/002 - Hitzarmenkide diren elkarteei zerbitzu iraunkorra eta aholkularitza globala eskaini, barruko zein kanpoko kudeaketari dagokionean	Eusk. Zerb. Artez enpr.
2.f.01/4 - Kirolean ere euskararen erabilera areagotzeko sentsibilizazio ekintza zehatzak egin	Eusk. Zerb. Artez enpr.



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

Neurria 2.f.02 - Udal-kiroldegietako langileak edo enpresa-zerbitzuak kontratatzerakoan hizkuntza-irizpideak ezarri. Udalaren eta ekimen pribatuaren esku dagoen 'Denontzako Kirola?' programan euskarazko eskaintza bermatu. Federazioen laguntzaz euskararen erabilera areagotu jendaurreko kirol-agerpenetan: iragarki, megafonia, errotulazio eta argitalpenetan.

Ekintzak	Eragileak
2.f.02/1 - Kirol taldeei zuzendutako diru laguntzetarako deialdietan hizkuntza-irizpideak betetzen diren ziurtatzeko jarraipena egin	Eusk. Zerb. Kirol Patron.
2.f.02/3 - Jendaurreko kirol-jardueretan euskararen presentzia bermatzeko indarrean dauden hizkuntza-irizpideak zehaztu	Eusk. Zerb. Kirol Patron.

Esparrua

2.g - Erlijioa

Neurria 2.g.03 - Euskarari buruzkoetan, ahalik eta bateratsuen jokatzeari eskatu elizbarrutiei.

Ekintzak	Eragileak
2.g.03/001 - Udalerriko elizbarrutiarekin sinatutako hitzarmena oinarri, zerbitzu iraunkorra eskaini euskararen erabilpena areagotzeko	Eusk. Zerb. Artez enpr.
2.g.03/1 - Katekesia eskaintzerakoan erabilitako hizkuntza irizpideen jarraipena egin	Eusk. Zerb. Elizbarrutia

- 3. Helburu estrategikoa.- Euskararen elikadura

Esparrua

3.g - Kulturgintza

Neurria 3.g.05 - Kulturgintza: Lan-baldintzak hobetzen, sortzaileen lanabesak egokitzen, beren lanaren oihartzuna ozentzen eta euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen lagundu Kultura Sailak.



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

Ekintza	Eragileak
3.g.05/1 - Kultur jarduerak sortarazten duten materialaren itzulpenak egiteko laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini	Eusk. Zerb. Artez enpr.
3.g.05/4 - Herrian dauden kultur talde desberdinak eta hauen lana ezagutarazi	Eusk. Zerb. Kultur Etxea
3.g.05/7 - Euskal kultur produkzioa zabaltzea eta ezagutaraztea	Eusk. Zerb. Kultur Etxea

3.- EGITASMOAREN GARAPENA

3.1.- 2009an beteko diren zeregin nagusiak:

- **Hizkuntza tailerra** (“Zelan idatzi”) eskaini elkartegintzako hitzarmenkidetarako, 2008an prestatutako materiala oinarri.
- **Ikastalde bereziak antolatu** merkataritza eta ostalaritzakoei.
- Eragileei bisitak egin eta **hitzarmenkide berriak lortu**:
 - 15 merkataritza-ostalaritza.
 - 10 enpresa txiki berri (aparteko garrantzia emango zaie osasun arloko profesionalen arlokoiei etea kontsumitzaileen eskubideei buruzko Dekretuak biltzen dituenen).
 - 5 elkarte berri.
- **Hizkuntza aldaketak** eragitea urtean zehar:
 - Dendetan: 40 aldaketa.
 - Enpresa txikietan: 60 aldaketa.
 - Elkarrekin: 60 aldaketa.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

- **Hizkuntza indizea neurtu** (HINAT neurgailua) kanpaina hiru ataletan (merkataritza, enpresa, elkartegintza) eta %1eko igoera lortu.
- **Aldizkaria argitaratu**, urtean zehar bi ale kaleratuz (ekainean eta azaroan).
- **Administrazioarekin** hitzarmenkideek mantentzen dituzten harremanetan euskararen erabilera areagotzeko konpromisoak finkatu, bisitaldiak eginda (Udalarekin, Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, INEM-Gizarte Segurantzarekin).
- **Begiraletza landu** (kanpainak gizarte eragileengan duen eragina neurtzeko inkesta): gizarte esparru desberdinetako 12 erakunderen bitartez burutuko da.
- **Egingo diren azpiekintzak:**
 - **BERRIA.- Foroa/bloga sortu**, hitzarmenkideen artean harremanak areagotu eta esperientziak trukatzeko.
 - **BERRIA.- Merkataritzan okindegiatarako kanpaina berezia eratu** DINA3 neurriko errotulu bereziak banatuz eta, hori aitzakia, sektore horretakoak hitzarmengintza kanpainara erakartzeko. Horrekin batera, ogi poltsak banatuko dira.
 - **BERRIA.- Asteleheneroko merkatu plazan eragitea** kanpaina berezi batekin. Eskualde mailan eragin handiko erreferentea da, indartsua oraindik; beraz, saltzeko postua dituztenei kanpainan parte hartzeko aukera emango zaie, konpromiso maila desberdinekin eta, batik bat, ahozko jarduna eta hizkuntza paisaiarena landuko dira. Hau guztia, udalako Eria eta Azoka arloko arduradunekin elkarlanean.
 - **“Kirola Euskeraz!”** kanpaina oinarri, inkesta berezia (**BERRIA**) egin entrenatzaile eta begiraleei eta elkarte



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

bakoitzekoekin kontraste taldeak eratu (**BERRIA**), hortik abiatuta ekintza plana jorratzeko. Jarraitu egingo da abenduko azken igandeko Abixadan kros herrikoiarekin.

- **BERRIA.- Kultur eta aisi elkarteko kideekin bi kontraste talde eratu**, kanapinako sarea hedatu eta finkatzeko eta hitzarmengintza kanpainako beste ataletakoekin harremanak normalizatzeari begira. Euskaraz funtzionatzeko “beharrizana” sortu behar da.
- **Euskeraz erostea, eskubide goxoa!** Kanpaina, kontsumitzaileen eskubideak ezagutarazi eta aldarrikatzekoa. Honekin lotuta, Kontsumitzaileen eskubideei buruzko Dekretu berriaren zabalkundea (**BERRIA**) egingo da.

3.2.- Jarduerak nork burutuko dituen:

- Euskara Zerbitzuak bere bizkar burututakoak:
 - *Elkarteekin/Erakundeekin harremanak izan eta hitzarmena sinatzeko proposamenak landu.*
 - *Motibazioa eta urteko helburuak landu hitzarmenkide bakoitzarekin..*
 - *HINAT neurgailurako eta hitzarmenkideei buruzko diagnostikoak egiteko datuak jaso.*
 - *Zerbitzu iraunkorrerako eskaerei erantzun eta, behar denean, zerbitzu iraunkorrerako adjudikazioduna den Artez enpresarekin zubi lana egin..*
 - *Buruturiko lanei buruzko txostenak egokitu.*



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

- Koordinazio batzarrak eratu eta kanpainaren betetze-mailaren segimendua egin.
- Urtean zehar sortuko diren azpiekintza bereziak burutu:
 - “Kirola Euskeraz!”
 - “Euskeraz erostea, eskubide goxoa”, kanpaina.
 - Okindegietako eta merkatu plazako azpikanpainak.
- 2009rako Artez enpresari adjudikatu zitzaion zerbitzu-kontratua indarrean dago (2008aan egin zen bi urterako). Adjudikaziodunaren bitartez eta Euskara Zerbitzuaren zuzendaritzapean garatuko diren kanpainaren eginkizunak:
 - Elkartek bakoitzari buruzko diagnostikoa egin eta bakoitzaren egoera soziolinguistikoa aztertu, beharrianak neurtu, Diagnostikoaren arabera hitzarmena egokitu eta baliabideak eskaini.
 - .
 - Aurrekoa gauzatu ahal izateko, urtean zehar bi sasoi berezitan (maiatza-ekaina eta azaroa-abendua) bisitaldiak egin hitzarmenkidetarako, urtean zehar izan diren ohiko harremanetatik aparte.
 - Hitzarmena sinatu dutenei zerbitzu iraunkorra eskaini (itzulpenak, hizkuntza aholkularitza, hiztegi elektronikoak, agiri-ereduak, agiriak.net, ikasare.net).
 - HINAT neurgailurako emandako datuak prozesatu eta txostena osatu.
 - Kanpainaren begiraletzarako inkesta egin eta datuak prozesatu.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

- Kirol elkarteetan inkesta burutu eta kontraste taldeak eratu. Kultur eta aisi elkarteen atalean ere kontraste taldeak antolatu.
- Lan guztiei buruzko txostenak egokitu.

4.- XEDE TALDEAK:

Hitzarmena sinatuta daukaten denda (117+9 berri), enpresa txiki (30+3 berri) eta elkarterekin (51+6 berri) elkarlanerako tresna dugu “Geure berbie euskeraz” Hitzarmengintza kanpaina.

DENDAK

Urtea	Egozan dendak	Zarratu diranak	Kanpoan geratutakoak	Sartutako barriak	Guztira amaieran
2001	76	-	-2	10	84
2002	80	-	-6	5	79
2003	64	-	14	20	98
2004	98	5	2	9	100
2005	100	2	2	12	108
2006	108	7	-	15	116
2007	116	5	-	9	120
2008	120	2	2	4	120

ENPRESA TXIKIAK

Urtea	Egozan enpresak	Zarratu diranak	Kanpoan geratutakoak	Sartutako barriak	Guztira amaieran
2001	-	-	-	7	7
2002	7	-	-	2	9
2003	9	-	-	2	11
2004	11	-	-	11	22
2005	22	-	-	4	25
2006	25	1	-	6	30
2007	30	1	-	3	32
2008	32	-	-	4	36



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

ELKARTEAK

Urtea	Dagozan alkartek	Sinatu daben taldeak	Sinatu ez dabenak	Desagertutak oak	Erantzun barik edo falta direnak
2004	72	37	6	3	26
2005	75	49	8	-	14
2006	75	51	-	-	12
2007	75	57	-	-	6
2008	75	57	-	-	6

Balorazio kuantitaboari buruzko hausnarketa egiterakoan, kontuan hartu beharko da merkataritza eta enpresa arloetako xede taldea, gorenetik jota, 1.400 ingurukoa dela, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren epigrafe guztietan agertzen direnak batuta (enpresa, merkataritza mota guztiak, profesionalak, autonomoak,...); aintzat hartu behar da autonomo edo enpresa bera ere epigrafe desberdinetan jasota izan daitekeela. Beraz, xede taldearen estimazioa gutxi gora-beherakoa dugu. Hargatik, hitzarmenkide ditugu 156 (xede taldearen %11,14).

Nabaria da elkarteen atalean izandako lorpena: 75etik 57 ditugu hitzarmenkide (xede taldearen %76).

Balorazio kualitatiboari begirako adirerazleak HINAT neurgailuak emango dizkigu, hitzarmenkideen artean eta atal bakoitzean erabileraren indizea azalduko zaigulako. Datu horiekin urtetik urteko bilakaera kontrolatzen ari gara.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

5.- KRONOGRAMA

Urtarrila	● Merkataritza eta ostalaritzako merkealdiko deiak ● Koordinazioa (Udala-Artez) ● Begiraletza ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Otsaila	● Astelehenetako merkatu plazako hitzarmen kanpaina ● Koordinazioa (Udala- Euskaigintza- Kontseilua) ● Prentsa artikulua: 2008ko balantzea eta 2009ko egitasmoa ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Martxoa	● Enpresa txikietako bisitak ● Kultur eta Aisi elkarteekin kontraste taldeak ● Prentsa artikulua ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Apirila	● Enpresa txikietako bisitak ● Elkarteetako jarraipenak ● Kirol elkarteetako kontraste taldeak ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Maiatza	● Merkataritza eta Ostalaritzako bisitak ● Koordinazioa (Udala-Artez) ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Ekaina	● Enpresa txikietako bisitak ● Elkarteetako jarraipenak



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

	● Prentsa artikulua ● Aldizkaria ● Motibazio kanpaina (azken astean hasi banaketa) ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Uztaila	● Urte erdiko balantzea ● Koordinazioa (Udala-Artez) ● Prentsa artikulua: sustapen jardueren informazioa ● Motibazio kanpaina ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Abuztua	● Astelehenatako Merkatu plazako bisitak (jarraipenak) ● Prentsa artikulua ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Iraila	● Merkataritza eta ostalaritzako bisitak ● Enpresa txikietako bisitak ● Koordinazioa (Udala-Artez) ● Kanpainako partaideen artean dauden etorkinen dignostikoa ● Prentsa artikulua ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Urria	● Enpresa txikietako bisitak ● Elkarreetako bisitak ● Kultur eta Aisi elkarteekin kontraste taldeak ● Koordinazioa (Udala-Euskaingintza-Kontseilua) ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

	● Itzulpen zerbitzua
Azaroa	● Aldizkaria ● Kirol elkarteetako kontraste taldeak ● Hizkuntza tailerra ● Koordinazioa (Udala-Artez) ● Begiraletza ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua
Abendua	● Merkataritza: merkealdira aurreko deiak ● Enpresa txikietako bisitak ● Elkarteetako bisitak ● Abixadan ● Koordinazioa (Udala-Euskaalgintza-Kontseilua) ● Foroa / Bloga ● Hizkuntza aholkularitza ● Itzulpen zerbitzua



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

6.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Eragileak:

- Euskara Zerbitzua: antolaketa, koordinazioa, harreman zuzenak eta kanpainaren dinamizazioa eta zabalkundea.
- Kultur Etxea: azpiegitura (zerbitzuaren kokalekua) eta zabalkundea.
- Artez enpresa (aholkularitza eta laguntza teknikoa).
- Urdaibai Rugby Eskola, kanpaina berezietarako begiraletza.

Giza baliabideak:

- Euskara Zerbitzua: HN Teknikaria 1 eta kanpainarako dinamizatzailea.
- Busturialdean euskaraz Bizi (begirale bat).
- Artez enpresa (aholkularitza zerbitzuaren adjudikazioduna): koordinaziorako teknikaria, itzulpen zerbitzua eta kanpainako arduretarako teknikaria.
- Urdaibai Rugby Eskolako 6 begirale kanpaina berezietarako.

Diru baliabideak.- Euskara Arloak 2009ko udal aurrekontuan dituenak.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

7.- AURREKONTUA

KONTZEPTUAK	KOPURUAK
Zerbitzu-kontratazioa: aholkularitza, teknologia baliabideak (agiriak.net, ikasare.net, ikastaroak), HINAT neurgailua, zerbitzu iraunkorra (itzulpenak, eredu-egokipenak, errotuloak), txostenak,	32.400
Euskara Zerbitzuak kontrataturiko dinamizatzailerak: Kanpainaren dinamizazioa (bisitak) eta motibazioa landu, datu bilketa (HINATerako eta diagnostikorako), zerbitzu iraunkorrerako zubi lana, lanari buruzko txostenak egitea.	20.000
“Euskaraz erostea, eskubide goxoa” kanpaina: - Kartelak, diptikoak,..... 1.500,00 - Opilak..... 300,00 - Napolitanak..... 800,00 - Kanpainarako begiraleak (8)..... 1.100,00 - Kontsumitzaileei begirako atala..... 1.000,00	4.700
Geure berbie euskeraz (berripaperaren bi ale inprimatzea eta banatzea)	1.600
Beste gastu batzuk: - Okindegietako kanpainako euskarraik... 1.000 - Kirola euskeraz! zabalkundea..... 1.600 - Hizkuntza tailerra..... 500	3.400
Gastuak guztira	62.100

Gernika-Lumon, 2008ko urtarrilean.

Idoia Fernández Antia
Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia Bengoa
Euskara Teknikaria